

noaua

**Larunbat honetan
'Erraustegia geratu'
manifestazioa Donostian**

**Euskaraldia: "Jendea
animoso ikusten dugu"**



**Elkar eta Gureak enpresak
Michelingo eremu libreria datoz**

950 lanpostu birkokatuko dira Usurbilen



URTINEA



igandetan irekia!

**SANTU GUZTIEN EGUNERAKO
AUKERA ZABALAK**

San Esteban auzoa, Usurbil 943 36 22 55



**FUNERARIA
GONZALEZ**
EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

**OCASO, SANTALUCIA...IZANEZ GERO,
HERIOTZA GERTATZEN BADA,
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H,**
(edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).

MOMENTU LATZETAN DENETAZ ARDURATZEN GARA

943 36 21 63 (24H)

·BEILATOKI GUZTIAK: USURBIL, ERREKALDE... ·ERRAUSKETAK



www.funerariagonzalez.es

ARATZ
zabaleta anaiak




29 urtez baserritar eta Arrantzaleekin zuzenean lan egiten
·eguneko menua · karta · pintxoak · bokatak · plater konbinatuak

Igara Bidea, 15, Donostia erreserbak: 943 21 92 04

Albiste iruditzen

Artzabalgo plazako zoladura konpontzen

Artzabalgo plazara gerturaten bazarete itxita aurkituko duzue. Udalak iragarriak zituen zoladura konpontzeko lanak abiatu dituzte. Lanok iraun artean plazarako sarbidea mugatua egongo da. "Soilik auzoek eta lokal komertzialetako bezeroek izango dute sarbidea eremu horretara. Garajeetara jaisteko eskilarak ere erabilgarri izango dira auzokoentzat", Udalak Udalberri aldizkariaren bidez ohartarazia duenez.

Konponketa lanok bi hilabete iraungo dute. Landa e Imaz SA enpresak bideratuko dituzte. Obra guztion zati bat Udalak hartuko du bere gain, zoladura konpontzeko gastuak hain zuzen, 267.000 euro guztira. Bertan bizi direnek inpermeabilizazio gastuak hartuko dituzte haien gain, 64.000 euro guztira. Hala adostu zuten bi aldeek iaz hitzarmen batean.



Lanok iraun artean plazarako sarbidea mugatua egongo da.

Laburrean

Asteburu honetan, ordu aldaketa

Ordulariak neguko ordutegira egokitu beharko ditugu asteburuan, urriaren 27tik 28ra, larunbatetik iganderako gau horretan. Goizaldeko 3:00etan 2:00ak izango dira.

Azaroaren 10ean batuko dira 1974an jaiotakoak

Azaroaren 10erako antolatu dute afora Saizarren. "Animatu!", luzatu dute gonbita. Izen emateko mezua bidali edo deitu 605 730 816 telefono zenbakira (Josune).

1952an jaiotako bazkaria

Abenduaren 2an bilduko dira bazkariarako Antxeta jatetxean 14:00etan. Izen emateko deitu aurrez, azaroaren 24a baino lehen, 620 516 715 telefono zenbakira (Javier).

noaqua

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 // elkartea@noaqua.eus // www.noaqua.eus

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkari koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Publizitatea: Beatriz Alda,

publizitatea@noaqua.eus

Diseinu berria: Erroitz S. L

Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noaqua.eus:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Banaketa: Iñaki Irazusta, Jon

Galbete.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbieto, Maddi Galbete,

Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa,

Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon

Etxabe, Alazne Begiristain, Denis

Elortza, Pello Aranburu, Xabier

Aranburu, Inma Balda, Luis Aran-

nalde, Nerea Zinkunegi, Maialen

Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

Euskal presoak



Euskal Herrira!



Garazi Lizaso Manterola

Bakea?

Askok zalantza izango dute pakea ala bakea idazten den. Izan ere, esaten denetik idazten denera gauzak aldatzen dira. Ez hori bakarrik, idatzi edo esaten denetik egiten edo gertatzen denera arte ere distantzia dago. Horixe da (amild)egia.

Zer da, ordea, bakea? Gerra edo indarkeriarik eza bezala definitu ohi da.

Gaur egun, ETak erailtzen ez duenez, Euskal Herri-
ra bakea iritsi (omen) dela diote. Diote diot (amild)egia beste aldetik ere begira daitkeelako. Gaur-gaurkoz bizi duguna ez dut uste indarkeriatik at edo gerra egoeratik kanpo dagoenik. Datuei eu-

ren kabuz hitz egiten utziz gero, horixe adierazten dute.

Aurten Hego Euskal Herri-
an, gutxienez, 57 langile hil dira lanean (urriaren 10era bitarte). Azkena, Zizurkilan. Hil dira ala erail dituzte esan beharko litzateke? Hain zuzen ere, euren heriotzek arduradun zuzenak dituzte. Euren senide edo ingurukoen erreparaziorik edo/eta sortutako minaren aitortzarik ez dago.

Horrez gain, Euskal Herri-
an 6 emakume* erail dituzte bikotekideek edo bikotekide ohiek 2018an. Horietako azkena, 25 urteko Maguette Mbeugou Bilbon labankadaz hil zuen senarrak. Nahiz eta bederatz

hilabete lehenago judizialki salatu eta urruntze agindua eskatu, ez zioten eman. Zaila da elkarbizitza bizitzarik ez dagoenean.

Luzatu ninteke judizialki salatzen (ez) diren erasoez. Ezin dira alboratu judizialki salatzeak dakartzan ondorengo zauriak – polizia etxeko gutxiespena eta (in) justizia patriarkalaren mailukada –. Mailakatu gabe eta korapiloak gehiago estutu gabe, baina hariak edo ertzak elkar gurutzatzen direla ulertu behar da: pape-
rik gabeko emakume* batek jasan dezakeena kontraturik gabeko egoera are prekarioago batean etxebizitza bat garbitzen duen bitartean

edota emakume* pentsionisten errealitate gordina. Horrelakoak ez ditugu historiako testu liburuetan irakurriko.

Kasu horiek guztiak gutxi balira bezala, giza-eskubi-
deak ere ez dira bermatzen; ez, behintzat, Euskal Herri-
an. Galdetu bestela asteburu honetan Algecirasera, Picassentera, Parisera edo ta Rennesera 40 minutuko bisitagetik bidaia egin(go) duen senideari/lagunari. Ez ahaztu, askotan, bisitar-
en iraupena Real Madrilen azken partiduko emaitzak baldintzatzen duela. Guztiz (lurzoru) etikoa.

Beraz, noren(tzako) bakea da hau?

Maialen Unanue | Luis Manterola | Aritz Gorriti | Imanol Ubeda | **Garazi Lizaso Manterola** | Luken Arkarazo

Gripearen aurkako txertaketa kanpaina abian

Urriaren 24tik abenduaren 5era txertatu ahaliko dugu gripearen aurka anbulatorioan. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoarako 400.000 dosi eskuratu dira eta 1,2 milioi euroko inbertsioa egin da, 30 urte bete dituen kanpaina honetarako. Txertoa, 65 urtetik gorako pertso-
nei, gaixotasun kronikoren bat dutenei, haurdun direnei eta osasun-langileei hartzea

aholkatzen zaie bereziki. Txertatu aurretik, hitzordua eskatu anbulatorioan bertan edo osasun etxera deituta. Hemen telefono zenbakia: 943361543.

Odol ematea, azaroaren 5ean
Usurbilgo Odol Emaileen Elkar-
teak bi hilean behin odola emateko egiten duen datorren deialdia, azaroaren 5ean, 18:00-
20:30 artean anbulatorioan.

Udarregik lan-poltsa bat osatzeko deialdia egin du

Autobus begiraleen ordezkapene-
tarako lan-poltsa osatu nahi du Udarregik:

■ Ezinbesteko baldintza: euskara jakitea.

■ Lehentasuna izango dute: - Ikastolako guraso direnek. - Usurbildarrak direnek.

■ Lanaren ezaugarriak: Ikastolako autobusa hartzen duten ikasleen zaintza lana egin.

-Autobuseko lau bidaietan ikasle-
leen zaintza.

■ Lan-ordutegia:

1. 8:20tik - 9:00etara.
2. 12:30etik - 13:00etara.
3. 13:50etik - 14:30era.
4. 16:30etik - 17:00etara.

Interesaturik bazaude edo in-
formazio gehiago jaso nahi izanez gero, Udarregi ikastolara deitu: 943-36 12 16 (Ikastolako idazkaritza).

* Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOAUAik ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatu eta gero. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia. Hurrengo alea: azaroak 2. Idatzia ekartzeko azken eguna: urriak 29.

EAJ: “Foru Funtsatik iritsiko den diruarekin bultzada bat eman diezaiokegu Zumarteren birgaitze-lanari”

Usurbilek 151.856 euro gehiago jasoko ditu Foru Aldunditik, Udalak Finantzatzeko Foru Funtsaren 2018ko likidazioa egin ondoren. Josune Urkola EAJ-PNV udal taldeko bozerama-learen esanetan, “oso albiste ona dugu hau, zalantzarik gabe. Norberaren etxean uste ez genuen diru-sarrera bat izaten dugunean pozten garen bezalaxe, gaur Usurbilgo Udalean pozikago egoteko arrazoia dugu”.

Aurtengo foru aurrekontuetan Usurbilentzat 4.070.109 euroko partida zegoen aurreikusita “eta Foru Ogasunaren sarreraren hobekuntzari esker, guztira 4.221.965 euro jasoko ditugu Diputazioko funtsa ho-



Urriaren 16an batu zen Gipuzkoako Finantza Kontseilua. Herrialdeko udalek 24,7 milioi euro gehiago izango dituzte erabilgarri. Argazkia: Goiena.

USURBILGO EAJ

“Usurbilek 151.856 euro gehiago jasoko ditu Foru Aldunditik, Udalak Finantzatzeko Foru Funtsaren 2018ko likidazioa egin ondoren”

netatik”. Josune Urkola zinegotziaren esanetan, “adierazle ona dugu, esan nahi baitu Gipuzkoako ekonomia-jarduera sendoa dela eta gaur egunean Foru Aldundia gidatzen dutenen kudeaketak eta lehiakortasunaren alde indarrean jarritako egitasmoak eta politikak

egokiak izan direla”.

Horiek horrela, Usurbilgo EAJ alderdiaren bozerama-leak bere egiten ditu Markel Olano diputatu nagusiak egindako adierazpenak: “zuhurtziaz jokatu behar dugula esanaz, eta zuhurtzia horrek berak gidatu behar gaitu ohiz kanpoko diru-sarrera honi eman diezaiokegun helburua aukeratzekoan”. Josune Urkolaren esanetan, “diru horrekin bultzada eman diezaiokegu Zumarte Musika Eskolako birgaitze-lanei. Proposamen hau, besteak beste, defendatu genuen 2018rako aurrekontuak eztabaidatu zirenean, eta orain, espero ez genuen diru-sarrera bat etorri zaigunean, horretara bideratzea egokia litzateke”.

Igerilekua handitzeko lanak martxan dira



Udalak “%20ko konpentsazioa aplikatu die aurtien Kiroldegiko abonatuiei”.

Oiardo Kiroldegiko igerileku txikia handitu, irisgarri bihurtu eta azpiko instalakuntzak berrietzeko lanak hasiak ditu Mariezcurrena enpresak. 767.642,76 euroko inbertsioa bideratuko du Udalak. 2018ko aurrekontuetako

inbertsio nagusia izango da. Lanok iraun artean, martxo ingurura arte itxita egongo da igerilekua, “ondorioz, Udalak %20ko konpentsazioa aplikatu die aurtien Kiroldegiko abonatuiei”.

Asfaltatze lanak amaitu dituzte Atxegalden



Lanak amaitu artean, errepidea itxita egon zen trafikoarentzat.

Egunotan itxita aurkituko zenuten iruditan duzuen Atxegaldeko Alperro-Buru kalea ibilgailuen joan-etorrientzat. Usurbilgo Udalak ohartarazi bezala, asfaltatze lanak hasi zituzten joan den

aste hasieran. Lanok amaitu artean, Alperro-Buru 8tik Ariztitxo kaleko bidegurutzeraino (Karobi taberna ingururaino honenbestez) itxita egon da trafikoarentzat. Baita Goiko Kalerako sarbidea ere.

Euskaraldia, trebatze fasean

Azaroaren 23tik abenduaren 3ra, Euskaraldiaren baitan egitera animatzen gaituzten ariketa ondo egitea, horretan jarri nahi dute bere indar eta ahalegin osoa, Euskaraldia Usurbilen antolatzen ari den talde sustatzaileak. Horretarako antolatu dituzte asteotarako, Belarriprest nahiz Ahobizi guztientzako prestakuntza tailerrak. Hitzorduon dinamizatzaileekin, Maite Iribar eta Maialen Iñarrarekin bildu da NOAUA!.

NOAUA! Formazio saio horietan zein izango da zuen egitekoa?

Maialen Iñarra: Herriz herri nahiz eremu eremu saio horiek jasotzeko aukera ezberdinak izango dira. Usurbilen Maite eta biok Angelun jasotako esperientzian oinarritutako saio batzuk eskainiko dizkiegu herritarrei. Ez gara adituak. Saio batzuk jasota, beste edonork emateko modukoak izango dira.

Maite Iribar: Hau dena bat dator Euskaraldiaren beraren filosofiarekin, saretze lan horrekin. Angelun jaso genuen formazioa, gure talde kideei erakutsi diegu eta talde kideek ere era berean, beste jende bati erakutsiko die. Oso interesgarria iruditzen zaigu egiteko modua; herritarrek herritarrak trebatzea. Baditu puntu batzuk oso gerora begira ere arrastoa utziko dutenak.



“Oso interesgarria iruditzen zaigu egiteko modua; herritarrek herritarrak trebatzea”.

MAIALEN IÑARRA

“Azken helburua da saioetatik herritarrak indarberrituta, ahaldunduta ateratzea”

Saio hauen ardatzak zein izango dira?

Maite: Ahobizi, Belarriprest den horrek hamaika egun horietan hizkuntza korapilo batzuk izango ditu. Saio hauetan, horiei buruz hausnartu eta soluzioak bilatuko dira modu kolektibo batean. Oso interesgarria da, hausnarketa gune horiek herrian bertan aktibatzea. Angelun ikusi genuenez, lan handia egin dute irakasteko baliatzen den mate-

rialak sortzen. Han dagoeneko 300 lagun baino gehiago prestatu dituzte, honen dimentsioa ikusten da.

Maialen: Angelutik eskaintzen ziguten mezua zen, erabat desberdin bizitzen zirela 11 egun horiek. Beraiek aurretik beste esperientzia bat egina zuten eta horko bizipenetatik hitz egiten ziguten. Esaten ziguten, 11 egun hauetan ez dela berdina izango saioa jaso duen pertsona batek egingo duen ariketa edo bere kasa egingo duena. Gure ustez garrantzitsua da ariketa ondo egitea, hizkuntza ohiturak astintzea lortu dutela ikustea. Garrantzitsua iruditzen zaigu saio hauetara herritarrak bertaratzeko, ez baita erraza izango Ahobizi edo Belarriprest

izatea 11 egunetan. Ahobiziek euskara hutsean bizi beharko dute. Sortuko zaizkie zailtasun batzuk, egoeren aurrean, nola jokatu. Belarriprest-en kasuan ez da erraza izango aurrekoa euskaraz egitera gonbidatzea.

Maite: Saioek ona dutena da norbere bizipenetatik abiatzen direla; zerekin egingo dugun topo, nola konponduko ditugun arazo horiek, beti ere lehen pertsonan jarrita. Horrelako kontuei pare bat buelta ematen zaizkie eta taldean beti kolektibo mailan, konponbideak, estrategiak planteatzen dira.

Maialen: Azken helburua, saioetatik herritarrak indarberrituta, ahaldunduta ateratzea litzateke.

Iñaki Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRITAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com
600 024 825

Uraitz, s.l.
Igeltseritza Orokorra
693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

Josue Igeltseritza
606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
urdaintzi@euskalnet.net
IT-ak egiten dira
649 43 54 75
943 36 72 64
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

“Jendea animoso ikusten dugu”



Azaroaren 5ean, batzar berri bat egingo dute eragileekin Potxoenean. 18:00etan hasiko da bilkura.

NOAUA! Erabileraren inguruan hausnartzera bultzatuko gaituzte.

Maialen Iñarra: Herritarrak lehen planoan daude. Denbora hartzea eskatzen du, eta norbere errealitatea erabileraren ikuspuntutik nolakoa den ikustea. Euskaraz bizi naiz? Ez? Zenbateraino? Antolatuta ditugun saio hauek herritarren artean hausnartzeko izango dira. Hizkuntza ohituren inguruko gogoeta hau kolektiboa izango da. Jolasen bidez gogoetatzea hizkuntza ohituren inguruan.

Tailerrak, aste honetatik aurrera.

Maialen: Hilaren 24an Ahobizientzat izango da. Urriaren 30ean Ahobizi eta Belarriprestentzat bereizita. Momentuz bi data hauek ditugu jarriak. Azaroan ere saiatu nahi dugu saio batzuk gehiago eskaintzen. Eragileekin ere ari gara lanean eta haiekin ere landu nahi ditugu halako saioak.

Maite Iribar: Eragileekin (kirirol eta kultur arlokoak, ikasketxeak, euskaltegia...) bilera bat egin genuen. Eragile horiek hartu dute konpromisoa beraien taldeetan Euskaraldia zabaltzekoa. Zuzeneko harreman horretatik oso gustura ari gara lanean. Ikastaroen filoso-

TREBATZE IKASTAROAK

“Hilaren 24an Ahobizientzat izango da. Urriaren 30ean Ahobizi eta Belarriprestentzat bereizita. Momentuz bi data hauek ditugu jarriak”

fia ere hor kokatzen dugu.

Euskaraldiko talde sustatzaile kide ere bazarete. Ze mugimendu sumatzen duzue herrian, Euskaraldiaren bueltan?

Maialen: Jendea izen ematen ari da eta erantzun ona ari da izaten. Jendea animoso ikusten dugu. Eragileek ere transmititzen digutena da, badela herrian euskararen gaiari helteko gogoa eta gogo hori sumatzen dugu.

Izen ematen ari direnen artean, sortzen ari da errepikatzen ari den zalantza edo kezkarik?

Maialen: NOAUA!ra edo Potxoenera izen ematera datozenean, azalpenak ematen dira. Argitzearren, bi rolen arteko aukeraketa ez dator hizkuntza gaitasunarekin bat. Euskaldun berri batek Ahobizi txapa izan dezake soinean, bere euskara praktikatu, harreman berriak euskaraz egin eta daukatenekin

bera euskaraz aditzen ohitzea. Edo alderantziz, euskaldun zahar batek Belarriprest txapa ere soinean eraman dezake berari euskaraz egitea nahi duelako. Konpromiso mailarekin lotua dagoen erabaki bat da Ahobizi edo Belarriprest izatea. Baina ariketa ondo egiteko biak behar ditugu, ez da bat bestea baino gehiago. Parte hartzeko baldintza bakarra euskara ulertzea da eta 16 urtetik gora izatea.

Maite: Hautu pertsonalen erroak ditu Euskaraldiak. Azkenean, nik euskaraz hitz egitea hautatzen dut, eta nik neure hautuari eusten diot.

Zalantzan dagoen horri, zergatik da garrantzitsua Euskaraldian izen ematea?

Maialen: Bakoitzaren hizkuntza ohiturak nolakoak diren pentsatzeko aukera ematen digulako. Azkenean Euskaraldiak duen helburu nagusia, euskara erabiltzeko ingurune eroso eta atsegin bat sortzea litzateke.

Maite: Aurrez hainbat herritan egin dute eta frogatu dute hizkuntza ohiturak aldatu ditzakegula, eta are gehiago, eutsi egiten zaiela. Gogoeta hauek egin ondoren, emaitzak oso oso onak izan dira egin duten herrietan.

Izen ematea eta tailerrak

Datozen deialdiak

■ Urriak 24, asteazkena 18:00 Ahobizientzako tailerra Potxoenean, UEMA-ko Jokin Urangaren eskutik.

■ Urriak 26, ostirala 19:00-20:30 Izen emate mahaia frontoi inguruan.

■ Urriak 30, asteartea 18:00 Ahobizi eta Belarriprest gutzientzako tailerra Potxoenean.

■ Azaroak 1, asteazkena: Artisautza Azoka egunez, izen emate mahaia frontoi inguruan.

■ Azaroak 5, astelehena: 18:00 Eragileekin batzarra Potxoenean.

Izen ematea:

NOAUA! K.E.-ren egoitzan, Potxoenean ditugun eskuorrietan. Bestela emailaz edo Euskaraldiak martxan jarritako web orrialdean.

Euskaraldian parte hartzeko baldintzak:

16 urtetik gora izatea eta euskara ulertzea. Ondoko bi roletako bat har dezakegu 11 egunez:

■ Ahobizi: ulertzen duenari euskaraz egingo diot, hark erdaraz erantzun arren. Ezezagunei lehen hitza, gutxienez, euskaraz egingo diet.

■ Belarriprest: egidazu euskaraz, nik ulertzen dut eta. Agian erdaraz erantzungo dizut, baina zuk niri euskaraz egitea nahi dut.

Informazio gehiago:

- E-posta: usurbil@euskaraldia.eus
- Web orrialdea: usurbil.euskaraldia.eus
- Facebook: Euskaraldia Usurbil
- Twitter: @EuskaraldiaUsurbil
- Youtube: Euskaraldia Usurbil

Usurbildarrak Donostian erraustegia geratzeko prest

Urriaren 27an arratsaldeko 17:00etan Donostian “Erraustegia geratu!” aldarripean egingo den manifestaziora joateko deia egiten diogu Usurbilgo herriari. Hortxe urriaren 18an Mikel Laboa plazan bildu ziren herritarrek ondoko argazkiarekin, usurbildarrei luzatu zieten gonbita. Bizimodu osasuntsuagoaren alde mobilizatzeraz deitzen diete, erraustegiaren aurrean, “alternatiba osasuntsuagoak, jasangarriagoak eta merkeagoak daudelako” Usurbilek eta beste hainbat herri erakusten ari diren moduan, Erraustegiaren Aurkako Usurbilgo Taldeak agerraldi amaieran plazaratu zuen adierazpenean zioenez.

Eta burua duenak ez duelako bere herrian erraustegirik nahi, bihotza duenak aldiz ez bere herrian, ez beste inon. Horren adierazgarri, Zubietan eraikitzen ari diren erraustegiaren arrisku eremuan den biztanleria. “Usurbil, Zubieta, Lasarte eta Urnieta erraustegitik 1-3



Manifestazioa arratsaldeko 17:00etan abiatuko da, “Erraustegia geratu!” aldarripean. Donostiako Amara auzoko Mendeurren plazatik irtengo da. Argazkia, artxibokoa.

ERRAUSTEGIAREN AURKAKO TALDEA

**Gure eta ondorengo
(seme-alaba-iloba-
biloba) osasuna lehenesten
dugulako erraustegiari ez
esaten diogu”**

kilometrotara aurkitzen dira. 5 kilometro inguruan 46.350 pertsona bizi gara eta 10 kilometro inguruan (erraustegia-

ren kutsadurak hartzen duen eremua kontaktzen da) 272.500 pertsona. Zenbat eta gertuago orduan eta kutsatzeko arrisku gehiago. Gure eta ondorengo (seme-alaba-iloba-biloba) osasuna lehenesten dugulako erraustegiari ez esaten diogu”, Erraustegiaren Aurkako Usurbilgo Taldearen esanetan.

“Atzerriko lurraldeetan 18 erraustegi itxi dituzte”

Euskal Herrian nahiz mun-

duan zehar ere erraustegiari ezetz esan diotela oroitarazten dute. “Nafarroan erraustegia ez den beste eredu bat aurrera eramatea erabaki dute. Asturiasen borroka asko ondoren hondakinak ez erraustea erabaki dute. Atzerriko herrialdeetan (Italian legea aldatu eta 12 erraustegi berri ez ditu baimenduko, Australian erraustegi erraldoi bat atzera bota dute, Madrilen Valdeminogomez itxi, Mexikon erraustegia gelditu, Irlandan atzera bota...) gutxienez 18 erraustegi itxi edo gelditu dituzte”, zehaztu dute.

“Segurtasun neurri guztiak hartuta ere, toxikoak dira”

Munduan zehar zientzialari prestigiotsuen ikerlanek argi utzi dute; “segurtasun neurri guztiak hartuta ere, erraustegiak toxikoak dira eta ingurua pozoitzen dute”, Erraustegiaren Aurkako Usurbilgo Taldearen esanetan. Minbizi arriskua edota erditze oso goiztiarrak areagotzen ditu.

Mubil gunea ere Eskuzaitzetan kokatuko da

Erraustegia eta hondakinak tratatzeko gainerako azpiegiturak, espetxea edota gizarteratze-zentroa kokatuko dituzte Zubieta gainean. Eskuzaitzeta eremurako beste proiektu bat iragarri dute

orain Donostiako Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak; etorkizunearn, elektromugikortasunaren arloan erreferentzia izan nahi duen Mubil gunea. Aurten hasiko dira eraiki-

tzen, eta 2021eko uztaileko martxan egotea aurreikusten dute. 5.350 metro karratuko azalera okupatuko duten lau eraikinek osatuko dute gunea. 19,3 milioi euro inbertituko dituzte erakundeek, 2025etik

aurrera, bai Gipuzkoan zein EAE mailan mugikortasun elektrikoaren mailaren nazioarteko erreferentzia bihurtadain. Mubil kudeatzeko fundazio publiko bat sortzekotan dira.

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Okindegia-Gozotegia

LABE-GOXO

Zuen
publizitatea
hemen

943 360 321
publizitatea@noaua.eus

“Zabalgarbik ez du osasuna bermatzen”

Euskal Herrian bada erraustegi bat, Zabalgarbikoa Bizkaian. Espainiako C.S.I.C. (erdaraz, Consejo Superior de Investigaciones Científicas) ikerlari Fernando Palaciosek landareetan oso kutsakorra den artsenikoa pilatzen ari dela dio, eta “hala jarraituz gero, errauste planta itxi egin beharko litzateke inguruko herritarren osasuna arriskuan egon daitekeelako”. Martxoan 34 miligramo artseniko topatu zituzten Kobetamendin. “30 miligramotik gora, umeez jolasteko desegokitzat jotzen dute eremua”.

Zubietan eraikitzen ari diren erraustegiari Eusko Jaurlaritzak 2016ko apirilean emandako Ingurumen Baimen Bateratuak ez du herritarren osasuna bermatzen, joan den asteko mobilizazioan gogorazi zuten bezala, GuraSOS-en enkarguz C.S.I.C.eko Eduard Rodriguez Farré eta Fernando Palacios doktoreek landu eta martxoan aurkeztu zuten txosten perizialaren arabera. “Aztertutako Ingurumen Baimen Bateratuak ez du bermatzen osasuna, atmosferara isurtzen diren substantzietatik kontrol eta mugarik ez baitu ezartzen. Inguruan barreiatuako dira, landareetan, lurzoruan eta uretan”.

Erraustegiaren Aurkako Usurbilgo Taldetik gogorazten dutenez, txostenak dio “egungo Legediak Ingurumen Baimen Bateratua herritarren osasunarentzat eta inguru-



C.S.I.C.eko Eduard Rodriguez Farré eta Fernando Palacios doktoreek aurkeztu zuten txosten perizialaren arabera Zubietako erraustegiari Eusko Jaurlaritzak emandako Ingurumen Baimen Bateratuak ez du herritarren osasuna bermatzen,

ARRISKUA

“Erraustuko diren hondakinek isuriko dituzten hainbat substantzia kutsakorrekiko kontrolik ez da ezarri eta ez dira mugatu gehienezko emisio kopuruak”

menerako arriskutsuak diren substantzien emisioa mugatu behar direla. Zehazkiago esanda, propietate mutageno edo kantzerigenoak izan edo airearen bidez ugalketan eragin dezaketela frogatuak dauden substantziena hain zuzen... Zubietako erraustegiari emandako baimenak aldiz, gabezia nabarmenak ditu. Erraustuko diren hondakinek isuriko dituzten hainbat substantzia kutsakorrekiko kontrolik ez

da ezarri eta ez dira mugatu gehienezko emisio kopuruak. Zientzialariek eginiko lanketak argi utzi du; segurtasun neurri guztiak hartuta ere, erraustegiak toxikoak dira eta ingurua pozoitzen dute”.

Ingurua, osasuna eta baita jatekoa ere. “Bizimodu osasuntsuago baten alde hor ibiltzen gara Lasarte-Zubietako Usurbil-Aginaga-Arratzain inguruetan, baratza-zelai-baso-sagasti-erreka-arrai-mendi edo abereei begira. Zubietako erraustegiak, ez al litzuke guztiak eta guztiok kutsatuko? Bertako landare eta barazkiak osasunarentzat hobeagoak direla esaten diguten garai hauean, Zubietako erraustegiak osasuna ezezik elikagaiak ere kutsatuko litzuke”, ohartarazten dute Erraustegiaren Aurkako Usurbilgo Taldetik.

Animu eta babes, estatuko errausketaren aurkako plataformen koordinakundetik

Larunbatean (urriak 27) Donostian egitekoa den manifestaziori begirako atxikimenduak urrunetik ere badatoz. Hondakinen errausketaren aurkako estatu mailako koordinakundeak Leongo Ponferradan egin berri duten zortzigarren topaketatik animu eta babes mezua helarazi dute sare sozialen bidez, txalo eta “ez, ez, ez, errausketarik ez!” oihu artean. “Donostiako erraustegiaren eraikitzearen aurka urriaren 27an egingo den manifestazio deialdirako gure agurra eta babes osoa bidaltzen dizuegu”.

NOAUA TXIBI S.L
KRISTALDEGIA
 • komertzial instalazioak • beira bikoitza
 • segurtasun beirak • dutxa-itxiturak eta irristailuak
 • ispiluak • barandak • kristal mota guztiak...
 Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

www.noaua.eus
 USURBILGO ATARIA

Elkar eta Gureak Usurbila datoz

Dimentsio handiko hirigintza-hitzarmena sinatu zuten urriaren 17an Artzabalen. Ondoko irudian dituzue sinatzaileak; Joxemari Sors Elkarlanean Fundazioko lehendakaria, Bertrand Touraton Michelin España eta Portugal S.A.-ren finantza-zuzendaria, Iñaki Alkorta Gureak-eko lehendakaria eta Xabier Arregi Usurbilgo alkatea.

Hirigintza-hitzarmen honi esker, Gureak eta Elkar Usurbila datoz, Usurbilgo lurretara, Michelinek lantegi ondoan, Urbil parean hutsik duen 70.000 metro karratuko lurzorura. Bi enpresok 45.000 metro inguru hartuko dituzte. Gainerako eremua, Michelinek berak, bere jarduera sendotzeko. 950 lanpostu inguru birkokatuko dira eremu honetan. Atzerapenik ez bada, 2022 aldera erreallitate bilaka daiteke proiektu handi hau.

Usurbilgo Udala: “Sekulako garrantzia duen jarduera ekonomikoa ekartzera goaz”
“Sekulako garrantzia duen jarduera ekonomiko bat bertara ekartzera goaz. 950 lanpostu ekarriko ditugu Usurbila. Horrek duen dimentsioa sekulakoa da”, udalerrri baten dimentsioa gaintzen du Xabier Arregi Usurbilgo alkateak



Akordioa Artzabalen sinatu zuten. Ezkerretik hasita, Bertrand Touraton Michelin España eta Portugal S.A.-ren finantza-zuzendaria, Xabier Arregi Usurbilgo alkatea, Iñaki Alkorta Gureak-eko lehendakaria eta Joxemari Sors Elkarlanean Fundazioko lehendakaria.

LAUKO AKORDIOA

“950 lanpostu inguru birkokatuko dira eremu honetan. Atzerapenik ez bada, 2022 aldera erreallitate bilaka daiteke proiektu handi hau”

Artzabalgo joan den asteko ekitaldian.

Aurrez eginiko lan luze eta sakonaren emaitza izan den hitzarmen honen sinatzeak “hirigintza tramitazioaren le-

hen urratsa markatzen du”, alkatearen esanetan. Hurrengo urratsa, “gure arau subsidiarioen aldaketa puntual bat bideratzea izango da”.

Etorkizunean Michelin inguruak hartuko duen itxura ez dela ohiko poligono itxi bat izango zioen, enpresen bete-behar pribatuak eta erabile-ara publikoa uztartuko dituen espazio ireki bat baizik. Irisgarritasuna eta genero perspektiba oso kontuan hartuko dituen espazioa. “Hirigintza modernoaren eta jasangarriaren adibide on bat garatu dugu

hilabeteotako lan guztian”, nabarmendu zuen Arregik Artzabalen egin zuten agerraldian.

“Inguru zaharkitu bat oso modu duinean eraberritzera goaz”

Gaineratu zuenez, hirigintza ez espekulatiboaren bide-tik, espazio berriak okupatu beharrean, espazio huts eta zaharkituak birgaitu eta berrerrabiltzeko Udalaren helburuekin bat dator elkarlanean bideratzen ari diren egitasmo hau. “Inguru zaharkitu bat oso modu duinean eraberritzera goaz”. Elkarlanean.

Xabier Arregi: “Goraipatu nahi dut elkarrekin lan egiteko hartu duten erabakia”

Alkateak argi azaldu zuen, “Usurbilgo lurrak ez dizkiogu edonori eskaini”. Legegintzaldi hasieran, Gureak eta Elkarrek bakoitzak bere aldetik jo zuen Udalera. “Elkarlanerako aukera eskaini zitzaizen”. Aukera honi

baiezkoa eman zieten. Horregatik, “goraipatu nahi dut elkarrekin lan egiteko hartu zuten deliberoa”.

Bidelaugun hoberik nekez aurkitu zitekeela adierazita, poza agertu eta lorpen handizat jo zuen Elkar eta Gu-

reak-ekin bideratzen ari diren elkarlana. “Gure herrian sustraitutako enpresak dira. Beren jarduerak bat egin du bete-betean Usurbilgo herriak dituen baloreekin”, azpimarratu zuen.

Gureak enpresaren kasuan,

“nahitaez aipatu beharra dago aniztasun funtzionala, inklusibitatea, pertsonak lan mundura erakartzeko egiten duen ahalegina. Elkar, euskararen eta euskal kulturaren erreferentzia ezinbestekoa da”.

“Proiektu oso ona da Usurbilentzat eta gipuzkoarrentzat”

Usurbilgo Udalak beazala, proiektu oso ontzat jotzen dute Gureak-ek, Elkarrek eta Michelinek Artzabalen sinatu zuten hirigintza-hitzarmenaren bidez gauzatuko dutena.

Gureak: “Behar puntual batetik Donostialderako irtenbide batera joko dugu”

“Proiektu oso ona da Usurbilentzat eta gipuzkoarrentzat”, zioen Gureak-eko lehendakari Iñaki Alkortak. Haietaz “behar puntual batetik Donostialderako irtenbide batera joko dugu”. Beharrak bultzatuta jo baitzuten Usurbilgo Udalera. Lasarte-Orian duela 20 urtetik duten tailerra zaharkitua geratu zaie, “erabat mugatua”. 177 langileek dihardute bertan, bere esanetan “baldintza prekarioetan”.

Horregatik zioen, “beharrak eragiten du askotan irtenbideak bilatu beharra”. Eta irtenbideen bila aterata, proiektu honetara batu zaizkienekiko esker oneko agertu zen.

Lan eskaeraren %80a Euskaditik kanpo jasotzen dutela adierazi arren, “indar komertzial horrek guztiak Gipuzkoan lanpostuak sortzea dakar”. Jendea lan eske dutela zioen. Zentzu horretan, proiektu honen garrantzia nabarmendu zuen. “Gaur sinatzen dugun operazio hau, Gipuzkoan bizipahiru urteetan izango dugun garrantzitsuena izango da”. Michelingo lurretan 400-500 lanpostu birkokatuko dituztela aurreikusten du Gureak-ek.

Lasarteko tailer zaharkituak eragiten zituen beharrei erantzungo die Michelingo gune berriak. Horrekin batera, Donostia edota Errenteriako zenbait lantoki ere bertara lekuz aldatu asmo dituzte.

Elkar: “Kultur industriari sendotasuna emango dio”

Proiektu honek “kultur indus-



Urbil eta Michelinen arteko orubeetan eraikiko dituzte Elkar eta Gureak-en egoitza berriak.

ELKAR

“Usurbilen aurkitu ditugu Michelin, Gureak eta Udalaren aldetik erraztasunak gure proiektua aurrera eramateko”

triarri sendotasun bat emango dio”, zioen Elkarlanean Fundazioko lehendakari Joxe Mari Sors-ek. Zergatik Usurbil? galdetzen zuen. “Usurbilen aurkitu ditugulako Michelin, Gureak eta Udalaren aldetik erraztasunak gure proiektua aurrera eramateko”, Sorsen esanetan.

Eta baita etorkizuneko erronkei heltzeko ere. Kultur paradigma baten aurrean gaudela zioen. “Kulturaren kontsumoa aldatzen ari da. Azpiegiturak sortu behar ditugu”. Alde horretatik proiektu

honek, aipatu moduan, kultur industriari sendotasun bat emango dio, “gure balore bat indarrean jarrita, elkarlana”. Azkeneraino, “portura iritsiko garela pentsatzen dut eta zerbait garrantzitsua izango dela Usurbil eta Gipuzkoarentzat”.

Urtero ia 800 produktu, %80a euskaraz argitara ematen du Elkarrek. Inprenta bat, lau argitaletxe, Madrilen, Valentzian eta Bartzelonan banatzaileak eta 20 liburu denda dituzte. “Horren kudeaketa biltegiak, zuzendaritza eta guztia ekarri nahi da Usurbila. 450etik gora langile”, Sorsen hitzetan.

Michelin: “Atsegin egiten zaigu gure bizilagunak izatea”

Bertrand Touraton Michelin España eta Portugal S.A.-ren finantza-zuzendariak ongi etorria eman zien etorkizuneari

bizilagun izango dituzten Gureak eta Elkarrekoei. “Atsegin egiten zaigu gure bizilagunak izatea”.

Tokikotasunaren ikuspuntutik, herriari estuki lotutako bi enpresak goraiatu zituen. Haiekin partekatuko du etorkizuneari, Michelinek egun hutsik duen lurzoru zati bat. Oroitu duenez, duela 10 urte neumatikoen ekoizpenean espezializatzen hasi ziren. 80 milioi eurotik gora bideratu zituzten instalakuntzak egokitzen. 10 urteren buruan, gama altuko eta lasterketetarako motoen gurgipilen mundu mailako erreferentziazko ekoizpen gunean bilakatu dira nabarmendu zuen. “Gure desioa betetzear da”, zioen. Hutsik duten lurzoruan, “hiri integrazioaren adibide izango den proiektua garatuko da”.

Udalbatzaren aho bateko babesa

Gogoan izan duela astebe- te Artzabalen sinatu zuten hirigintza-hitzarmen hau udalbatzak aho batez onartu zuela iraila amaierako osoko bilkuran, uztailekoan behin behinean onartu ostean. Hi-

tzarmenak udalerriko mugak gainditzen dituen proiektu handi honen tramitazioa abiaraziko du. Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-87 (Zapategi) eremuko hirigintza ezaugarrien Aldaketa Puntua-

la bideratuko da hurrengo hilabeteotan. Eta aldaketa puntual honi esker, ondoko irudietan duzuen Michelinek erabili gabe duen lur eremuan kokatuko dira etorkizuneari Elkar eta Gureak.

“Gu komun bat” eraikitzeko beharra nabarmendu zuten Mundualdian

Mundualdia jai giroko ospakizunetik haratago doa. “Mundura begira jartzen gaitu. Internazionalismoaren eta elkartasunaren balioak gure herrian zabaltzeko eta indartzeko borondatea du”, Xabier Arregi alkateak agurreko hitzaldian adierazi zuenez.

Aurreko astean, Saul Narvaezen hitzak batu genituen aldizkari honetan. Mundualdian, egun batez anfitrioi sentitzen zirela zioen jatorriz nikaraguarra den usurbildarrak. Alkateak Narvaezen hitz horiek eskertu zituen baina sentipen hori urte osora luzatu beharko litzatekeela adierazi zuen agurreko hitzaldian. Helburua hori izan behar duela nabarmenduz.

Ildo berean hitz egin zuten Josune Estella zinegotziak eta



Egunari ekin aurretik, antolatzaileek eta udal ordezkariak agurreko hitzaldia eskaini zuten frontoian.

Lizzy Mejiak, Hondurastik gure artera bizitzera etorri den gazteak: “Guk aniztasuna aukera bihurtu nahi dugu. Aniztasunak aberastasuna baitakar gure herrira. Aberastasun kulturala,

soziala eta baita ere ekonomikoa. Horretarako ezinbestekoa da elkar ezagutzea eta elkarrenganako zubiak eraikitzea. Gu komun bat eraikitzeko”.

Eskola Dantza Taldekoen

saioa eta gero hasi zen jakien dastaketa. Frontoira hurbildu zirenek Nigeria, Ghana, Nikaragua, Italia, Sahara, Cuba edota Mauritaniako janak zein edanak dastatzeko aukera izan zuten.

Euskaraldia eta Mundualdia, bat eginik

Mundualdiaren egunean, Euskaraldiako sustatzaileek mahai bat ipini zuten Sutegi ondoan. Jende ugari hurbildu zen izena ematera. Gogoan izan, azaroaren 23tik abenduaren 3ra ospatuko da Euskaraldia.

Ostiralean, izena emateko aukera berri bat Mikel Laboa plazan

■ Urriak 26, ostirala: 19:00-20:30 Euskaraldian izena emateko mahaia Mikel Laboa plaza inguruan. Eta bestela NOAUA! Kultur Elkartearen egoitzan, Potxoenean ditugun eskuorrietan. Emailez ere egin daiteke edota Euskaraldiaren web orrialdearen bitartez.



Mundualdia Festan jende ugari hurbildu zen Euskaraldiaren mahaira. Ostiral honetan ere izena emateko mahaia ipiniko dute Mikel Laboa plazan.



Usurbil artisauen bilgune izango da azaroaren 1ean

Eskez eginiko sormen lanen eta sortzaileen bilgunean bilakatuko da frontoia azaroaren 1ean, Aitzaga Elkartek antolatutako 23. Artisanu Azokan. Goiz eta eguerdi partean pilotalekura joaten bazarete, denetariko hamarnaka postu aurkituko dituzue urtero moduan, azoka girotuko duen hamaiketako ederrarekin batera. Eta artisauen artean bi herritar; Zorione Mendez eta Ibai Arrieta.

Ibai Arrietak eginiko argazkiak

Estreinakoz parte hartuko du Ibai Arrieta argazkilariak. “Etxean edo tabernan, espazio batean dekorazio gisa erabiltzeko ondo geratuko diren Usurbil inguruko paisaiak adierazten dituzten irudiak” jarriko ditu ikusgai. Horrekin batera, 2010ean Kuban eginiko lan batekin osaturiko liburuxka.

Eta eskuragarri baita, eskuartean duen proiektu berria



Bitxigintza, larrugintza, egur lanketa, zeramika, otarregintza, metalgintza... Postu ezberdinak topatuko ditugu frontoian egingo den azokan.

bezala. “Espazio digital bat zabaltzeko asmoa dut, era honetako argazkiak erakutsi eta interesa duenak neurri eta eskarri pertsonalizatuan eskuratzeko”.

Halere, Internetak ematen ez duen aukera eskainiko dio Artisanu Azokak Arrietari. “Azokan aukera ona ikusi dut, zuzeneko hartueman izateko herritarrekin”. Aukera ederra ikusten du sortzaileen lana ikusgarri egin eta plazaratzeko.

Zorione Mendez ilustrazioak

Azaroaren 1erako gogotsu da Zorione Mendez herritarra. Gogotsu, denboraldi bateko etenaldiaren ostean, berriz marraztera itzuli delako eta plazara bueltatuko delako. Itzulera bikoitza beraz. “Lehen jarduten nintzen marrazten, nahiko utzia nuen eta berriro animatu naiz”, adierazi dio NOAUA!ri.

Arte Ederrak ikasi zituen garaian, anatomiarik lotutako ikasgaia gustuko zuen. Eta

horixe da islatuko duena, Aitzagan berriz hasitako sortze lanen ibilbide honetan; gorputzari lotutako ilustrazioak. Hitzordurako, aurrez herrian antolatu izan dituen ehungintzaren inguruko bi erakusketetan baliatutako “Bi Txoriburu” marka berreskuratu du.

Aitzakia ederra izango du postua jarriko duten lagun gehiagorekin egoteko. Ez zaio arrotza azoken mundua. “Beste edizio batean parte hartu nuen, bigarren eskuko azoketan parte hartu izan dut”. Gustuko du azoka giroa, jendearekiko hartueman, gustuko duena sortu eta ikusgai jarri... Azoka giroari eustea garrantzizkotzat jotzen du. “Gustatzen zait eta oso garrantzitsua iruditzen zait azoketako giro hori. Ez da erraza baina bultzatu beharra dago, salerosketa, parte hartzea, ikustea... Gure kulturaren parte da eta galdu dezakegu bestela”.

Azaroaren 1ean Taxi Bus zerbitzu berezia, hilerrira igotzeko

Santu Guztien Egunean, azaroaren 1ean, Usurbilgo Udalak Taxi Bus zerbitzu berezia jarriko du, hilerrira igo edota hilerritik jaisteko. 10:00etatik 14:00etara bitarte, joan-etorrian ibiliko da Taxi Busa, eta zerbitzua doakoa izango da. San Inazioko autobus-geltokitik irteneko da.

“Udalak Taxi Bus zerbitzu berezia jarriko du azaroaren 1erako, Santu Guztien Egunerako, hilerrira igo edota hilerritik jaisteko”, Udalak ohar bidez jakinarazi duenez. Goizeko 10:00etatik 14:00etara bitarte, zortzi joan-etorri egingo ditu autobusak.

Taxi Busaren garraio zerbitzua doakoa izango da azaroaren 1ean.



Taxi Busak igotzeko eta jaisteko zerbitzuak eskainiko ditu eta doakoa izango da.

Hilerrira igotzeko ordutegiak:

10:00-10:30-11:00-11:30-12:00-12:30-13:00-13:30.

Azken igoera 13:30ean egingo du.

Hilerritik jaisteko ordutegiak:

10:15-10:45-11:15-11:45-12:15-12:45-13:15-13:45.

Azken jaitsiera 13:30ean egingo du.

■ Irteera Usurbildik:

Autobusa San Inazioko autobus-geltokian hartu beharko da.

■ Itzulera: hilerriko ataritik.

“Tadamun elkargune bat izatea nahi dugu”

Sorteri guztietako usurbildarren elkargune eta herrien arteko elkartasuna sustatzeko talde gisa aurkeztu zuen bere burua Tadamunek, larunbateko Mundualdia jaialdiaren testuinguruan jendarean, urriaren 19an Sutegin egin zuen ekitaldian. Internazionalismoaren arloan, herrian zegoen hutsunea betetzera dator arabieraz elkartasuna esan nahi duen bilgune berria.

Usurbil inklusiboago baten alde

Bi lan ildo nagusi jorratuko ditu Tadamunek. Batetik, beste herrietako bizimodu, errealitate, hamaika borroka herrira ekarri nahi dituzte, usurbildarren artean ezagutzera eman asmoz. Talde, bolondres, brigadista eta abarren lekukotzak, hitzaldi, mahai-inguru ezberdinen bidez. Baina haratago joan nahi du bil-



Internazionalismoaren arloan, herrian zegoen hutsunea betetzera dator arabieraz elkartasuna esan nahi duen bilgune berria, Tadamun.

guneak. “Usurbil inklusiboago baten lanketan”.

Enpatizatze beharra

Sutegin ziotenez, “kanpoko gatazka eta dauden bizitzeko modu ezberdinetaz elikatuz.

Hor aurkituko dugu kanpotik datorren jendearekin enpatizatzea. Eta hor, Tadamun elkargune bat izatea nahi dugu. Asistentzia juridikoa eta babesa ematen duten beste elkarte batzuekin harremanetan gau-

de. Gure ilusia, etorkizunean, kanpotik etorri den jendearekin harreman bat egin eta Tadamun denon elkargunea izatea litzateke”. Taldea helbide honetan jarrai dezakezue Twitter bidez: @tadamun_herriak

Zumarteko hiru musikari Madrilen izan dira Lauhaizeta Akordeoi Orkestrarekin batera jotzen

Zuzeneko musikak zerbait berezia du, disko edo erreproduktore batek eskaini ezin dezakeena. “Horregatik Lauhaizeta Akordeoi Orkestrak zuzenekoaren aldeko apostua egiten du”, Zumartetik aditzera eman dutenez. Eskusoinuak eskaini dezakeen musika ezagutzera ematea du xede eta Gipuzkoako hainbat herritako akordeoilariak osatzen dute taldea. Tartean dira hiru usurbildar.

Hernani, Irun, Lezo eta Usurbilgo musikariak batzen dira Lauhaizeta Akordeoi Orkestran. Musika Eskoletako ikasleek jotzen dute, Mari-bel Insausti, Josu Sarasa eta Joxean Anduagaren zuzen-



Hernani, Irun, Lezo eta Usurbilgo musikariak osatzen dute Lauhaizeta Akordeoi Orkestra.

daritzapean. “Azken hamahiru urteetan bidaia asko egin dituzte, besteak beste, Serbia, Italia, Sevilla, Bartzelona... Horrez gain, Gipuzkoan bertan askotan jo dute. Aurten Madrileren abiatu dira 35 akordeoilariarekin, horien artean, Usurbilgo

Intza Apezetxea, Imanol Iribar eta Asier Iruretagoiena ikasleak. Kontzertua Madrillgo San Ignacio elizan izan zen, bertako Euskal Etxeak gonbidaturik”, Zumarte Musika Eskolatik aditzera eman digutenez.

KzGunea, datozen ikastaroak

Urriaren 31ra arte 16:00-20:00 artean zabalduko dute KzGunea, azaroaren 2tik aurrera 09:00-13:00 artean. Segidan, datozen ikastaroen berri:

■ Urriak 24-25, 18:00-20:00 “Argazkiak. Zure argazki guztiak antolatu edozein gailutik” (erdaraz).

■ Urriak 29, 18:00-20:00 “Google Maps. Ibilbiderik onena arakatu eta aukeratu” (erdaraz).

■ Urriak 30-31, 18:00-20:00 “Erosketa seguruak Interneten”.

■ Azaroak 5-16, 9:00-11:00 “Ofimatika tresnak. LibreOffice”.

Informazio gehiago:

Kale Nagusia, 37.

943 023 684

tutor.usurbil@kzgunea.net

Errigoraren produktuak eskatzeko epea zabalik da

Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka Errigoraren udazken parteko elkartasun ekimena abian da Euskal Herri osoan, baita Usurbilen ere. Azaroaren 14ra arte eska ditzakezue Nafarroa hegoaldean ekoizitako bi produktu kutxak.

Dagoeneko bost urte bete ditu, AEK, Ikastolen Elkartea, Sortzen, Zazpiak Bat eta Errigora inplikarazi dituen kanpaina honek. Euskara, elikadura-burujabetza, auzolana eta Nafarroa hegoaldea lotu ditu. Tokiko ekoizpena sustatzearen batera, bildutako laguntzaren zati bat bertako euskalgintza suspertzera bideratu dute. "Ideia simplea zen: Nafarroa hegoaldeko baratzen uztaekin saskiak osatu eta jasotako diruaren %25 zonalde zigortu honetan euskara hauspotzeko erabili. 2013an 8.000 saski baino gehiago eskatu ziren eta azken bi urteetan 14.000 banatzera iritsi gara".

Bost urteko ibilbidea

Jasotako laguntza nabarmentzeko modukoa da. "2013-2018 urte bitartean, 800.000 euro bideratu ditugu Nafarroa hegoaldeko euskalgintzara. Mila esker eta zorionak hau posible egin duzuen guztioi!". Guztia, besteak beste, usurbildarron laguntzari esker.

Bildutako euroetatik haratago joan da noski, ekimen



"Azken bi urteetan 14.000 kutxa banatzera iritsi gara", Errigoratik adierazi dutenez.

ERRIGORA

"2013-2018 urte bitartean, 800.000 euro bideratu ditugu Nafarroa hegoaldeko euskalgintzara"

honek eginiko ekarpena. "Urteotan lortutako milaka euroei zuku handia atera zaie, baina guztion artean herri honi egin diogun ekarpena ezin da eurtotan neurtu. Euskal Herriak eta herritarrak elkarrengana hurbiltzeko ahala, ekoizle eta kontsumitzaileen arteko indar batuketa edo auzolanak ematen duen bizipoza ezin baitira zenbatu", Errigoratik diotenez.

Begi bistako ekarpenak

Urteotan auzolanean bildutako elkartasuna, Nafarroa hegoaldeko euskalgintzara bideratu

dute; besteak beste, ikastoletara. Azpiegiturak hobetu edota baliabidez hornitzera.

Erriberako AEK-ra ere helarazi dute laguntzaren zati bat. Euskaltegiaren mantentura, baina baita ikasleei bekak ematera ere. Administrazioaren laguntzarik jasotzen ez dutenez, ikasleek euskaltegi matrikulatzeko egin behar izaten duten ahalegin ekonomiko handia lagundu nahi dute hartara. Jada 70 ikasleek jaso dute aipatu beka. Eta nabaria da bost urteotan nola igo den matrikulazio kopurua AEK-n; 2013az geroztik bost urteotan, 60tik 102ra.

"Baina orain artekoa bidearen hasiera baino ez da izan. Jarrai dezagun euskararentzat dirua zenbatzen eta herriarentzat ekarpen kontaezinak pilatzen!", animatzen dute Errigoratik.

Euskaraldiarekin bat

Errigora ekimenak bat egin du baita azaroaren 23tik abenduaren 3ra ospatuko den Euskaraldiarekin. Euskararen erabilera areagotu, hizkuntza ohiturez hausnarrarazi nahi digun ekimenean Belarriprest nahiz Ahobizi gisa izen ematera animatzen dute.

Udazkeneko kanpaina

■ Eskerak: urriaren 25etik azaroaren 14ra NOAUA! K.E.-ren egoitzan.

■ Bi produktu aukeran:

Kutxa beltza:

Prezioa: 50 euro.

Produktuak: oliba-olio birjina estra, ozpin ekologikoa, mahats-zuku ekologikoa, orburu bihotzak, piper txorizero mamia, potxak, ardo beltz ekologikoa, zainzuri zuriak, arbendolak, borraja ekologikoa, pikillo piper osoak, melokotoia almibarretan, tomate frijituia.

Kutxa zuria:

Prezioa: 50 euro.

Produktuak: pikillo saltsa, pasta ekologikoa, teilak, pikillo piper osoak, ardo beltz ekologikoa, zainzuri zuriak, orburu bihotzak, arroza, zainzuri-krema, piperrada, ozpin ekologikoa, ardo eta kanela pastak, txokolatzeko cookieak.

Informazio gehiago:

errigora.eus

Urtebetetze argazkia, ostiraleko elkarretaratzean

Euskal preso eta iheslarien etxeratzea galdegiteko elkarretaratzea deitu du Usurbilen Nahi Ditugu bilgu-

neak ostiralerako (urriak 26), iluntzeko 20:00etan Mikel La-boa plazan.

Mobilizazioaren amaieran,

42 urte betetzear dituen Patxi Uranga presoaren aldeko urtebetetze argazkia aterako dutela ohartarazi dute. Olatz

Lasagabaster eta Xua alabarekin batera Usurbildik 600 kilometrorra urrundua segitzen du Patxi.

NOAUA! aldizkariaren gehigarri bat, TOKIKOM Sarietako finalisten artean

EITB-k Bilbon duen egoitzan eginiko TOKIKOM jardunaldien baitan, TOKIKOM Sarien hirugarren edizioa ospatu zuten astelehen goizean. Tokiko hedabideetako azal, eduki, ikus-entzunezko eta euskarazko iragarkirik onenak saritu zituzten.

Edukien atalean, NOAUA! izan zen finalistetako bat, urte hasieran Joxan Artze zendu berritan kaleratu genuen Joxan Artze gogoan izeneko gehigarriagatik. “Bi kazetariko erredakzio batek 16 orrialdeko gehigarri osatu eta txukuna landu zuen oso egun gutxi-ko tarteaz (Artze hil eta bost egunera kaleratu zen gehigarria), beste behin ere, tokiko ikuspegitik interes orokorreko ekarpena eginez”, adierazi du epaimahaiak. Oroigarria Bilbora bertaraturiko NOAUA! Kultur Elkarteko lehendakari Idoia Torregarai jaso zuen.



Sari banaketa EITBren egoitzan egin zen, TOKIKOM Jardunaldien baitan. Idoia Torregarai NOAUA! Kultur Elkarteko lehendakariak jaso zuen finalistari zegokion ziurtagiria.

NOAUA! bigarren izan da finalista Tokikom Sarietan. 2016an ospatu zen lehen edizioan, eduki onenaren saria jaso zuen, urte hartako Sagar-do Egunaren bueltan, Udarregi bertsolariaren omenez frontoi atzean dagoen eskulturaren 50. urtemugaren harira NOAUA!k argitara emandako Udarregiren omenez, 1966-2016 gehigarri bereziagatik.

Segidan duzue, 2018ko sari-tuen berri:

Tokikom Sariak 2018

- Azalik onena: “Porrotx” (Puntuak).
- Edukirik onena: “Berba eta irudia (Geuria).
- Ikus-entzunezkorik onena: “Umeterapia” (Hiruka).
- Iragarkirik onena: “Egin swing eta ahalegin” (Arrasateko Udala/Arteman Komunikazioa).



Azaroaren 3an, zientzia tailerrak Aginagan

Antxomolantxa Elkartek antolatuta, zientzia tailer hainbatetan parte hartzeko aukera izango da azaroaren 3an (larunbata) familia giroan. Zomorro, kimika eta blandinblu tailerrak iragarri dituzte 17:30etan hasita, Aginagako ludotekan. Sarrerak bertan eskuratzeko aukera izango da, 3 euroren truke.

San Praixku Guraso Elkartek begiraleen lan poltsa osatu nahi du

Ostiral hau, urriaren 26a dute interesdunek, Aginagako San Praixku Guraso Elkartek osatu nahi duen begiraleen lan-poltsara kurrikulumak bidaltzeko azken eguna, aginaga@eskolatxikiak.org helbidera. “Aginagan antolatzen diren Gabonetarako, Aste Santurako, udako txokoetarako eta baita goizetako zaintza zerbitzurako ere” egin dute deialdia.

Haurrentzako zine zikloa abiatzar da, lehen saioa azaroaren 4an

Bueltan dator Usurbilgo Udalak Ziortza Gazte Elkartearekin haur eta gaztetxoentzat antolatutako euskarazko zine zikloa. Azaroaren 4tik aurrera, lehen igandean filmak proiektatuko dituzte 17:00etan hasita Sutegin. Sarrera: 3 euro.

Munduko mailako sari bat jaso du Lanbide Eskolak

Hezkuntza Iraunkorren atalean eskuratu du mundu mailako lehen saria, Lanbide Eskolatik berri eman dutenez. “Urriaren hasieran, Melbournen (Australia) ospatu den Munduko Eskola Politeknikoaren Federazioaren biltzarrean, WFCP, Usurbilgo Lanbide Eskolak hezkuntza iraunkorrearen kategorian lehen saria lortu du Enegur proiektuarengatik. Oier Aranzabal Usurbilgo Lanbide Eskolako zuzendariordeak jaso du saria eta Enegur proiektuaren nondik norakoak ezagutarazi ditu Melbourneko ekitaldian”. Zorionak!



Oier Aranzabal, Lanbide Eskolako zuzendariordea, saria eskuartean duela.

Alebinen errendimendu hastapenerako eskubaloi ligan parte hartzeko deia

Alebinen mailako errendimendu hastapenerako ligan parte hartzeko deialdia egiten die Usurbil K.E.-k 2007. urtean jaiotakoei eta gurasoei. 2018-19 ikasturtean LH 6. mailan ikasten ariko direnei alegia. Alebinen errendimenduko hastapenerako liga, Gipuzkoako Eskubaloi Federazioak antolatzen du Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean. Bigarren urteko alebinei, LH-6ko neska-mutleiei zuzendua dago. Gipuzkoako klub onenak gonbidatzen ditu liga honetara.



Interesdunek urriaren 31 baino lehen eman behar dute izena. Argazkia, artxibokoa.

Usurbil K.E.-etik, larunbateko saioekiko desberdintasuna zein den argitzen dute. “Larunbateko saioetan eskola kiroleko programapean mini-eskubaloi lantzen da. DBH1-etik aurrera, infantil mailan, zelai osoan jokatzeko da eskubaloiaren. Maila berrirako prestakuntza eta egokitzapena lantzen da, aldaketa hain handia izan ez dadin”.

Egutegia

Oiardo Kiroldegiko kanpoal-

ENTRENAMENDUAK

“Oiardo Kiroldegiko kanpoaldean den pista librean egingo dira entrenamenduak, igandeetan”

dean den pista librean izango dira entrenamendu saioak igandeetan. Azarotik abendura gainera, lagun arteko partida

batzuk jokatu direla aurreikusten da. Eta urtariletik maiatzera, hilero bi norgehiagoka igandeetan. Bat kanpoan, bestea etxean. Honenbestez, “hilean partida bakarria izango da Usurbildik kanpo, denboraldi osoan 5 iguru”.

Izen ematea

2018-19 denboraldi osorako kuota 50 eurokoa izango da. Ordainketak kontu zenbaki

honetan egin behar dira: ES47 3008 0259 11 2038715328 (Rural Kutxa). Ordainagirian, jokalariren izen abizenak zehaztu.

Interesdunek urriaren 31 baino lehen izena eman eta ordainagiria emailaz nahiz whatsapppean helarazi behar duzue bideotatik. Bideotatik jaso ditzakezue baita argibide gehiago ere: eskubaloi@usurbil@gmail.com 722 212 389 (Iñaki)

Zumba maratoi solidarioa

Haur nahiz heldu kirola eginez dantzan jarri ohi ditu Betisa Carrasco herritarrak Oiardo Kiroldegian, zumba ikastaroetan. Larunbaterako (urriak 27) zumba maratoi solidarioa antolatu du 17:00-19:00 artean Kiroldegian bertan. Txartelak aurrez izango dira salgai Txirristran edota Oiardo Kiroldegian, eta egunean bertan Oiardon.



Larunbat honetan, 17:00etatik aurrera Kiroldegian. Argazkia: Aiurri.

Otsondo-Bidarrai irteera eta Mendi Astea, Andatzak azarorako prestatu dituen planak

Mendizaleen hilabetea izan ohi dugu azarora. Andatza M.K.T.-k hilero antolatzen duen txangoarekin batera, Mendi Astea ere ospatuko baitute. Berezia aurtengoa, egungo zuzendaritza taldearentzat azkena. Uda amaieran iragarri zuten moduan, 8 urte eta gero, 2018rako aurrekusiak dituzten konpromisoak bete ostean, mendizaleen bilgunekeo ku-deaketa ardura uztera baitoaz.

“Andatzako ildoak jarraituko duen taldetxoa osatzera animatzen dizuegu eta erreleborako gaur eguneko zuzendaritza taldearen laguntza izango duzue”, luzatua dute gonbita.

2019rako behar luke Andatza M.K.T.-k zuzendaritza talde berria. Azken txanpara begira, eta duela bi aste Pirinioetan izan ostean, azarorako hitzorduok deitu dituzte:

Otsondo-Bidarrai irteera Azaroak 11, igandea

■ Abiatzeko hitzordua: 07:30ean Oiardo Kiroldetgitik autobusez.

■ Ibilbidea: Otsondo-Bidarrai, 20 kilometro.

■ Izen ematea: 10 euroko ordainketa egin azaroren 7a baino lehen, kontu zenbakiotako batean:

Rural Kutxa: 30080259163005430321. Kutxabank: 20955069071068489805.

■ Oharrak:

-Plaza mugatuak.

-Otordua ibilaldiaren amaieran egongo da.



Huesca aldean ibili ziren urrian. Azaroaren 11n Otsondo-Bidarrai bidea osatuko dute.

AZAROKO IRTEERA

“Azaroaren 11n Otsondo-Bidarrai ibilbidea osatuko dute. Izen ematea azaroren 7an itxiko da”

-Janaria norberak eramane behar du, edaria Andatza M.K.T.-ren esku.

Mendi Astea

Azaroak 22, osteguna

■ 19:00 “Ametsen harria” eta “Azpeitia Annapurna II 86” Sutegin. Jose Mari Azpiatzuk eta Josu Bereziartuak aurkeztuta. Sarrera doan.

Azaroak 23, ostirala

■ 19:00 “Aizkora hotsak goi mendietan” Sutegin. Sarrera doan.

Azaroak 25, igandea

■ Alkiza-Hernio-Asteasu mendirteera.

■ Abiatzeko hitzordua: 7:30ean

Oiardo Kiroldetgitik autobusez.

■ Ibilbidea: 19 kilometro.

■ Izen ematea: 30 euroko (bidaia + bazkaria) ordainketa egin azaroren 21a baino lehen, kontu zenbakiotako batean:

Rural Kutxa: 30080259163005430321. Kutxabank: 20955069071068489805.

■ Oharrak:

-Plaza kopuru mugatua.

-Ibilaldia amaitutakoan, otordua Asteasuko Iturriondo jate-txean egongo da.

-Andatza M.K.T.-k antolatutako irteeretan parte hartzeko derrigorrezkoa da mendiko federatua izatea eta aseguru txartela indarrean izatea. Federatu gabe dagoenari tramitea egongo zaio, hala nahi badu. Horretarako web orrian aurkitzen da egin beharrekoa, edo jarri bestela harremanetan taldearekin, andatza@hotmail.com helbidean.

■ Informazio gehiago:

andatza.com

■ Antolatzaila: Andatza MKT.

Eskubaloi partidak

Kiroldetgitik

Urriak 27, larunbata

■ 9:45 Infantil mutilak: Udarregi A-Ormaiztegi

Urriak 28, igandea

■ 10:00 Kadete neskek, Territoriala: Usurbil K.E.-Elgoibar

■ 11:30 Jubenil neskek, Territoriala: Usurbil K.E.-Ereintza

Futbol partidak

Haranen

Urriak 27, larunbata

■ 10:00 Infantil mutilak: Udarregi Usurbil F.T. “A”-Amara Berri K.E.

■ 12:00 Kadete neskek: Usurbil F.T.-Tolosa C.F.

Pilota Aginagan

Urriak 27, larunbata

■ 09:00 Paleta Gomaz Nagusiak, 1. Maila
PAGAZPE (Esnaola-Errasti) / Zarautz

Otar-Goxo
Elkagariak

Zubiaurrenea, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

Artzabal
Patxieta Jate-txea
· bazkariak EGUNERO
· afariak. asteazkenetik larunbatera
© 943 362725 · © 688 690 361

ARTZABAL
BASERRIA · JATE-TXEA
EGUNEKO MENUA KARTA
PLATER KONBINATUAK
OGITARTEKOAK · TOSTAK
MENU BEREZIAK
943 36 91 39
www.artzabaljate-txea.eus

ETXEBIZITZA

Salgai

Etxea salgai, Zubiaurrenean. 70 m². 3 logela, egongela, sukalde eta komuna. Balakoa trasteleku. Dena kanpora. Fatxada eta teilatua berrituta. 688 779 465.

Etxebizitza eta garajea salgai Etxe-aldian (San Esteban kalea). Biak batera edo aparte. 3 logela, sukalde-egongela eta bainugela. Etxebizitza 60m² eta garajeak 22m². 688866968

3 logela eta ganbarako etxebizitza salgai edo alokairuan Aginagan. Berritu berria, eguzkitsua eta lasaia. Tel. 650450869

Etxea erosi nahi dut Usurbilen. Kaxkotik gertu dagoen auzo batean. Gehienez 100.000 euro ordaintzeko prest. Tel. 666 770 851

Etxebizitza eta garajea salgai. Biak batera edo aparte. 3 logela, sukalde-egongela, 2 bainugela. Etxebizitza 78 m² eta garajeak 50m². Tel. 676 453 176.

Erreka Txiki 13. Duplexa salgai Usurbilen. 132 metro², 80 solairu nagusian; 2 logela, 2 komun, egongela eta sukalde. Garaje itxia etxerako zuzeneko sarbiderekin eta trasteroa. 320.000 euro. 646 305 465.

126m²ko pisua salgai Aginagan, 65m²ko ganbararekin. Oso eguzkitsua, dena kanpoaldera. Berritu beharra. Prezioa 186.000. 659257889 edo 680742504.

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro² lokala salgai Munalurran. Etxea bihurtzeko baldintzak betetzen ditu. Prezioa: 68.000 euro. 943 916 182 (Jon).

90 m² pisua salgai Txaramunto kalean. 3 logela, sukalde, 2 komun, egongela. 11 m²- terraza, 8 m² trasteleku eta bertan 33 m²-ko garajea erosteko aukera. 606 877 856

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukalde, egongela eta

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

2 bainugela. Dena kanpoaldera. Ganbara prezio barruan. Prezioa: 205.000 euro. Tel. 629 631 838

Pisua eta garajea salgai kale nagusian. 3 logela, sukalde, egongela, komuna, kalefakzioa. Denberrituta. Fatxada ere bai. Garajea 40 m² eta itxia. Biak batera edo aparte. Tel. 695 705 905.

Gure Borda salgai: 5.600 m², borda, aterpea 943 42 96 82 / 637 293 471

Kalezar auzoa, 3 gela handi, sukalde handia, komun bat. Gela guztiak kanpoaldera. Fatxada berrituta, telatua egoera onean. Garajea, bi trasteleku. 135 m². 637 22 88 60

2 gela, komuna, sukalde eta sala dituen etxe bat erosiko nuke. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Alokairuan

Pisu bat alokatzen da kaxkoan. 3 logela, 2 bainugela, sukalde, jangela eta egongela. Igogailuarekin. Tel. 656 783 227

Alokairuko pisu baten bila gabilta. Bi neska gara, biak lanarekin, arduratsua eta garbiak. 688893668

Abendurako pisua alokairuan hartu nahi dut, Aginagan, Usurbilen edo Orion. 690 367 952

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

Logela bat alokatuko nuke. Mutil langilea, serioa eta arduratsua. 651 197 381 / 632 138 393

Alokatzeko pisu merke baten bila gabilta, bikote bat gara, biak lanarekin, informea ditugu.

675595294

Duplex bat alokatzen da Txaramunto kalean. 3 logela, 2 komun, sukalde, egongela, bulego bat, terraza bat eta garajea. 625 702 807.

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

Negoio-ekonomia lokal bat alokatzen da. Kafetegi edo taberna gisara nahiago, baina aukerak zabalik. Kaxkoan kokatua. 630 456 404

3 geletako etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

Alokairuko pisu baten bila nabil. 3 logela eta igogailua. Familia arduratsua eta nominarekin. Epe luzerako. Tel. 687 201 410.

Logela alokairuan Aginagan, pertsona arduratsua batentzat. Tel. 672 448 644.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Txakur bat dut. Erroldatua. 661 115 222

Alokairuko pisu txiki baten bila nabil. Presa dauka. 699 680 265.

3 logela dituen alokairuko pisu baten bila nabil, baina epe motz batean (urte 1) erosteko aukerarekin. Tel. 686 554 145. Ana.

MOTORRA

Salmenta,

garajeak

Camper furgoneta salgai. 2007koa, 130.000km. Oso egoera onean. Duxa, ohea, frigora, armairuak, termikoki aisolatua, mahaia,

argiak, aurreko eserlekuak biragarriak... (679471831 Jon)

Atxegalden garaje bat erosi edo alokairuan hartuko nuke. 653014518

Garaje itxi bat alokatzen da Errekatziki kalean. Tel. 616 235 366.

Alokairuan 50m²-ko lokal/garaje bat Atxegalden. Autoak sartzeko atarekin. Goiko kalea 2. 676453176

Baju bat alokatzen da Munalurra, 4ean. Tel. 652 765 583

Garajea salgai Txaramunto kalean. 23 m², ate elektrikoa eta itxia. 615744628.

34m²ko lokal komertzial bat alokatzen da Errekatziki 5ean. 695723192

2 garaje marra alokairuan edo salgai, Olarriondo 4an. Banaka edo biak batera. Tel. 663 031 803

120 metro² lokal bat salgai. Alpe-rroburu 3an. 699 306 158

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Kamarero eta sukaldari laguntzailea behar dira Aratz erretegiari. info@restaurantearatz.com

Kentuene jatetxean jantokirako zerbitzari bat behar da aste-buruetarako. Euskara jakitea garrantzitsua. kentuene@kentuene.com

Aseguru sektorean espezializatua den gestore pertsonal baten bila gabilta. Heziketa aseguru-etxearen esku eta libre egotea eskatzen da. Diru-sarrera altuak. jm.fandino@catalanaoccidente.com. 699 760 873.

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Lan egin nahi dut. Interna edo externa bezala. Pertsona helduak zaintzen, supermerkatuan, tabernetan... Tel. 682 723 520

Pertsona helduak zainduko nituzke, asteburu, jai egunetan eta gauean,

baita erietxean ere. 606 661 048 / 943 404015.

Jende heldua zaintzeko prest. Interna moduan edo orduka. Dokumentazio osoa dut. 682 72 35 20.

Neska euskalduna, Usurbilen umeak zaintzen egingo nuke lan udara honetan: ekaina, uztailea edota abuztuaren (goiz, arratsalde edo orduka). 617263123.

Lan bila nabil. Garbiketan edo pertsona helduak zaintzen. Etxean, ospitalean, gauetan, externa bezala, orduka edo asteburutan. 671763558

Lan bila nabil interna edo externa bezala. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. Urtebeteko esperientzia. Arduratsua, erreferentzia onekin. 666 295 450

Garbiketa egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko. Esperientzia duen neska, arduratsua. Berehala lanean hasiko nintzake. 637 106 649

Lan bila nabil, pertsona helduak zaintzeko. Ospitalean, etxean, gauetan. Garbiketa orokorrean ere bai. 671 763 558

Lan bila nabil etxeak garbitzen edo umeak zaintzen, ekaina eta uztailea, goizetan eta Usurbilen. 608201745.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Interna, externa edo orduka. 632 541 872

Emakume bat naiz, eta lan bila nabil. Interna, externa, orduka. Helduak edo umeak zaintzen. 676 188 411

Neska bat naiz, eta lan bila nabil. Orduka lan egingo nuke. Helduak edo umeak zaintzen. 619 355 819

Mutil gazte bat naiz, eta lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen, hospitalean, baserrian. 632090146

Mutil gazte bat naiz, eta lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen, hospitalean, baserrian. 632793747

Lan bila nabil. Umeak edo pertso-



Zorionak Victor!

Urriaren 23an 6 urte bete dituzu!!! Muxu asko etxekoan partez!



Zorionak Ixiar!!! Urriaren 23an, 68 urte betetzen dituzun egunean, ondo ospatu dezazula zure eguna. Etxeko senar, seme-alaba eta biloben partez!!



Zorionak Josune!!!

Urriaren 31n, 45 urte beteko dituzu. Muxu asko senar, seme-alaba eta gurasoen partetik.

Heriotzak

Kandido Etxeberria Maioz

88 urterekin hil zen urriaren 18an Aginagan



na helduak zaintzen. Esperientzia eta erreferentziakin. 662 910 181

Emakume bat eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko. Geriatriako eta lehen laguntzako ezagutzak ditut. Esperientzia etxeko lanetan eta antolamenduan. Erreferentziak ditut. 612 495 429

Emakume bat eskaintzen da, etxeko lanak egiteko edo umeak zaintzeko. Goizez edo arratsalde. Esperientzia daukat. 690 336 444.

Lan bila nabil. Orduka eta arratsalde. 663 776 93

Lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen, gauean, asteburutan, externa bezala edo garbiketara lanetan. 671 763 558.

Interna moduan lan egin nahi dut adinekoak zaintzen. 25 urteko lan esperientzia dut. 633 73 64 26

Lan bila nabil, etxeak garbitzen, etxeko lanak egiten edo pertsona helduak zaintzen. Esperientzia ere erreferentziakin. Tel. 632 576 258

Mutil arduratsua baserriko lanetarako eskaintzen da. 661118892.

18 urteko neska euskaldun herritar esperientziaduna naiz. Aste osoan zehar arratsaldetan umeak zainduko nituzke. 688817429.

Lan bila nabil. Umeak zaintzen, garbiketara lanak egiten, orduka, interna bezala. Tel. 642 238 949

Lan bila nabil. Etxeak garbitzen, arratsaldetan 2 ordu edo asteburutan. Tel. 663 776 223.

Usurbilgo bizilagun bat naiz, eta orduka garbiketara egiten lan egiteko. Tel. 674 570 534

Lan bila nabil. Etxeak garbitzen, arratsaldetan 2 ordu edo asteburutan. 663 776 223. Maribel

Lan bila nabil edo gabiltza. Pertsona helduak zaintzen edo garbiketara lanak egiten; bulegoak, garajeak, portalak, poligonoak, edo enpresak. Sukaldean ere moldatzen naiz. Kotxea dut, eta esperientzia. 688 654 698.

Lan bila interna, esterna moduan, haur nahiz helduen zaintzan aritzeko. Esperientziaduna. 677 624 971.

Lan bila nabil. Interna, externa, aste burutan, gauak pasatzen... lan egiteko. Paperak eguneratuta eta esperentziarekin. 645 067 560

Emakumea eskaintzen da heldu nahiz haurrak zaintzeko. Interna edo esterna moduan. 697 221 372.

Emakumea lan bila haur, helduen zaintzan, etxeko lanak egiteko interna edo esterna moduan. Esperientziaduna. 617 998 582.

Garbiketara lanak, helduen zaintza lanak egiteko prest interna moduan, egunez edo orduka. 671 763 558

Mutil gazte bat naiz eta lan egiteko nuke. Baserrian, animaliak zaintzen, pertsona helduak zaintzen, harraskan, arraina garbitzen... 688 802 851

Lan bila nabil. Interna, externa, orduka edo gauean. Garbiketara lanak egiten, pertsona helduak zaintzen... 634 278 198

Neska ikasle eta gaztea eskaintzen da oportunitate umeak zaintzeko. Tel. 632 504 672

Neska gazte euskalduna, klase partikularrak emateko prest egongo litzateke: euskeran, gaztelan, ingelesean eta frantsesean goi maila eta tituluduna. 687025768 (Jaione).

Lan bila nabil. Orduka, gauean... Pertsona helduak zaintzen edo garbiketara. Tel. 671 763 558

Lan bila nabil. Interna bezala, orduka... edozein modutan. Tel. 638 877 627

Lan bila nabil. Interna bezala edo orduka eta astelehenera ostirale-

ra. 690 146 607

Lan bila nabil. Interna bezala, orduka, gauean... edozein modutan. Pertsona helduak zaintzen, garbiketara lanetan... 634 278 198

Neska arduratsua erreferentzia eta esperentziarekin eskaintzen da. Pertsona helduak edo umeak zaintzeko edo garbiketara lan egiteko. Interna moduan, orduka edo gauez. 677 624 965

Neska farmazialaria segituan lanean hasiko nintzake. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketara. 622 217 818

Lokal bat salgai, Nagusia 5ean, 120 metro2. 699 306 158

Neska bat eskaintzen da orduka lan egiteko. Etxeak garbitu edo adineko pertsonak zaintzeko. Tel. 687 348 223.

Geriatria laguntzaile bezala, edo sukaldari bezala (euskal sukaldearen ezagutzak). 688 654 698.

Ileapaintzaile bat naiz, eta etxetan ilea orrazteko eskaintzen naiz. Apropoza pertsona helduentzat, edo etxetik atera ezin duenarentzat. 612 487 017.

Helduak edo umeak zaintzen edo garbiketara lanak egiten lan egiteko nuke. 632 587 450.

Asteburutan, interna bezala lan egiteko nuke, pertsona helduak zaintzen. 602 871 835.

BESTELAKOAK

Marradun garaje bat alokairuan Bizkarre auzoan 696014585

Ingelesko eta frantseseko klaseak ematen ditut, etxetara joanda. Jokin. Tel. 600 766 068

14 bat urteko eta eskumuturraren tamainako dordoka galdu dut. Bario sentimental handia du. Aurkitu baduzu: 663 065 460.

Zapi bat galdu da, beisa eta granatea, Noaara ekarri mesedez.

Mandarina japoniarrik saltzen ditut: 659 18 51 07 (Jose Antonio).

Mutur txuri urdindun eta horidun perikito bana desagertu dira. Aurkitu badituzu deitu: 619 817 460.

Kale Nagusian, kazadora argi bat aurkitu da. Zurea bada, Aizpurua Okindegitik pasa, bertan dago.

Erlorju bat galdu dut Santuenean. GPSa eta pultsometroa. Souto Gramin markakoa, beltza. Aurkitu baduzu deitu: 662 039 829.

Gerezi koloreko logela bat salgai. Egoera onean. Ohea, idazmahai, armairua eta apal bat. 400 euro. 600 320 967

Udarregi ikastolan klase partikularrak emateko jende bila gabiltza. Interesa baduzu pasa ikastolatik edo deitu! 943 36 12 16

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenera ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (lehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiarde Kiroldegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaual Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 25 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Ostirala 26 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Larunbata 27 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Igandea 28 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Astelehena 29 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Asteartea 30 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Asteazkena 31 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Urriak 25 - Azaroak 04

Osteguna 01 GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

Ostirala 02 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Larunbata 03 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Igandea 04 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak ireki-
ta egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
ECHEVESTE ELOSEGUI, JORGE
Elkano 9 Behea, Hernani
943 55 20 87 22:00 - 09:00

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.

Agenda urria

26 ostirala

- **Euskal presoen eskubideen aldeko elkarretaratzea.** 20:00etan Mikel Laboa plazan.
- **Iñaki Agirresaroberen argazki erakusketa** Sutegin. 18:00-20:00.

27 larunbata

- **Kantu-jira.** 12:30ean Mikel Laboa plazatik abiatuta.
- **Manifestazioa: "Erraustegia gelditu!"** 17:00etan Donostiako Mendeurren plazan.

28 igandea

- **Ordu aldaketa.** Goizaldeko 3:00etan 2:00ak izango dira

Iñaki Agirresaroberen erakusketa



Usurbildarrak argazki erakusketa berria antolatu du Sutegin; "Udazkeneko eguzki izpiak" izenekoa, urriaren 22tik 31ra bisitatu ahalko duzue, kultur etxeko

erakustaretoan. Udazkenak eskaintzen dituen koloreen argazki erakusketa jarriko digu ikusgai ordutegi honetan: 18:00-20:00 artean.

Larunbat honetan, kantu-jira eguerdiz

Arratsaldean ez, larunbat eguerdi partean giotuko du Kantu Taldeak euskal abestiz Kaxkoa. Urriaren 27an, 12:30etan abiatuko da kantu-jira Mikel Laboa plazatik. Kantu Taldearen entsegu saioak bestalde, astelehenero 18:00-19:00 artean Agerialdeko musika gelan.

Azken ordu aldaketa izango al da?

Azken aldian eztabaida gaia da Europan. Bertan behera utzi dezakete urtero bitan egin behar izaten dugun ordu aldaketa. Nork jakin. Gogoan izan, ordulariak neguko ordutegira egokitu beharko ditugu larunbatetik iganderako gauean. Goizaldeko 3:00etan 2:00ak izango dira.

Datozenak



Go!azen telesailekoen emanaldia

Go!azen-eko Eli, Markel eta Ander (Ainhoa Larrañaga, Asier Burguete eta Iker Villa) Urbilen izango dira larunbat honetan. 'Elkargunean' arituko dira, aisialdiko solairuari sarbidea ematen dion eskaileren ondoan. Eguerdiko 12:00etan hasiko da emanaldia eta sarrera doan izango da.

ETB1eko telesaileko 13 abesti eza-gunak kantatuko dituzte eta bertaratzen direnek eurekin batera abesteko aukera izango dute. Amaieran, hiru aktoreekin argazkiak egiteko tarte bat zabalduko dute. Horretarako *photocall* bat ipiniko dute propio.

Azaroaren 1ean, Artisautza Azoka

Goiz eta eguerdi partean frontoira gerturatzeko bazarete, denetariko postuak aurkituko dituzue.

Usurbil Autoak
MEKANIKA-KARROZERIA

SUSTITUZIO KOTKEA DOAN!!

ZUMARTEGI INDUSTRIALDEA ☎ 943 36 10 79

JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
☎ 943 370 008

EROSKI/city

kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

Bidaia eta Mendi Kroniken Lehiaketa 2018

Aurten, lanak aurkezteko bi era dituzu: idazlan edo bideo bidez; zuk aukeratu!

Idazlan bidez, oinarriak

ikusi eta lanak bidaltzeko, sartu:

Berria.eus/mendietabidaiakronika2018

Bideo bidez, oinarriak:

- Aurkezten diren bideoek originalak eta argitaragabeak izan behar dute.
- Bideo bakoitzak gutxienez **5** minutu eta gehienez **20** minutu izan behar du.
- Bideoek euskarazkoak izan behar du. Euskaraz ez den edukirik balego, euskarazko azpidatziak izan behar ditu.
- Bideoak online sistema bidez (tori.eus edo wetransfer.com) bidali behar dira bideoak@berria.eus helbidera, **azaroaren 11 baino lehen**. Gaia: Bidaia eta Mendi Kroniken Lehiaketa.
- Bideoarekin batera, hauek ere bidali behar dizkiguzue:
 - Bideoaren fotograma bat .jpeg formatuan
 - Izenburua
 - Sinopsia edo laburpena
 - Egileen izen-abizenak, telefonoa eta helbide elektronikoa.
 - Baloratuko da:
 - Kalitate artistikoa
 - Gidoiaren originaltasuna
 - Edizio lanketa
- Jasotako bideoak **BERRI**aren Youtubeko kanalean jarriko dira, eta **BERRI**aren webgunean publikatuko. Bideoa egin duenak izango du bidalitako lanaren edukia arduratzen.
- **BERRI**ak eskumena izango du lanak lehiaketatik kanpo uzteko; lehiaketatik kanpo utzi ahal izango ditu mezu iraingarriak, giza eskubideak urratzen dituztenak edo sexistak darabiltzaten bideoak.
- Datu Pertsonalak Babesteko Arautegia betez, parte hartzailean jakinarazi nahi zaio bere datu pertsonalak **EUSKAL EDITOREA SL** enpresaren tratamendu sistemetan jasoko direla, horixe baita **Tratamenduaren Erantzulea**. Hala, parte hartutako lehiaketa kudeatzeko erabiliko dira, soilik.

SARIA-Idazlana:

Irabazlearentzat, Mendiak eta Herriak mendi gidari elkartearen oparia, lagun batentzat.

ZERMATT INGURUKO GOI MENDIKO ZEHARKALDIA

Breithorn (4.165 m) · Castor (4.226 m) · Parrotzspitze (4.436 m) · Zumsteinspitze (4.563 m)

EGITARAUA:

1. Alpeetarako bidaia. Norbere autoan. Gaba Saas Grund herrian, Suitza. Mantenu erdia.
2. Theodul aterpea (3.200 m). Saas Grund – Tasch, gure autoan. Tasch – Zermatt, taxiz. Teleferikoa Zermatt – Trockener Stegg (2.700 m). Trockener / Rifugio Theodul (3.200 m), Theodul glaziarrean barna, 1.30 ordu. Mantenu erdia.
3. Breithorn (4.165 m eta 4.160 m). Theodul / Breithorn lepoa, 1.30 ordu. Breithorn lepoa / Breithorn (4.165 m eta 4.160 m), bi gailurren arteko zeharkaldia eginez. Guida Val d'Ayas aterpera (3.200 m). Mantenu erdia.
4. Castor (4.226 m). Val d'Ayas / Castor (4.226 m), 4 ordu. Castor gailurra / Quintino Sella aterpea (3.400 m). Bi ordu. Mantenu erdia.
5. Parrotzspitze (4.436 m). Quintino Sella aterpea / Liskjoch lepoa / Ludwigshöhe (4.341 m), Parrotzspitze (4.436 m) gailurra. Punta Gnifetti —4.556 metrora igoko gara, non Margerita aterpea dagoen. Alpeetako aterperik altuena—. Mantenu erdia.
6. Zumsteinspitze (4.563 m). Margerita / Zumsteinspitze (4.563 m), ordu bat. Grengletscher glaziarretik behera egingo dugu, Mte Rosa aterperaino (2.800 m). Mantenu erdia.
7. Zermatt eta Saas Grund-erako itzulera. Mte Rosa aterpea / Grengletscher glaziarra / Rottenboden tren geltokirako igoera. Trenez Zermattera. Zermatt – Tasch – Saas Grund.
8. Etxerako itzulera

SARIA-Bideoa:

Irabazlearentzat, ATXASPI HOTELEAN **Relax** asteburu-pasa, bi lagunentzat.

Parte hartzaile guztien artean, APALATEGI KIROLAK dendan gastatzeko 100 euroko 3 bonu.

BABESLEAK:



ATXASPI HOTELA



APALATEGUI
DEPORTEAPALATEGUI.COM

Usturbilan bizi eta erosi!

hurbilag



Euskadi, auzolana, bien comune



LEGIARLOU, DEPARTAMENTO DE TIERRAS,
DEPARTAMENTO DE TIERRAS

Usturbilero Urdala